

## BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

2177

*58/2022 DEKRETUA, maiatzaren 10ekoa, zeinaren bidez urgentziako deklaratzeko baita Añarbeko Uren Mankomunitateak, nahitaez desjabetzeko, honako eskubide eta ondasun hauek okupatzea: Urnietan, Urnietako hiri-sektoreak Añarbe sistemaren ur-horniduran sartzeko proiektua burutzeko beharrezko ondasunak eta eskubideak.*

Añarbeko Uren Mankomunitateak, «Urnietako hiri-sektoreak Añarbe sistemaren ur-horniduran sartzeko proiektua» delakoaren espedientea formalki onartu eta gero, proiektua gauzatzeko lur guztiak erabiltzeko beharra adierazi zuen.

2020ko azaroaren 6an, Añarbeko Uren Mankomunitateak nahitaezko desjabetze-espedientea hastea eta ondasunen eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea erabaki zuen, hamabost eguneko epean, prentsan eta 2021eko ekainaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (119. zk.). 2020ko azaroaren 6an ere, Añarbeko Uren Mankomunitateak erabaki zuen proiektuak ukitzen dituen eskubideak eta ondasunak okupatzeko urgentziaren adierazpena eskatzea, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Urgentziaz okupatu beharreko ondasunak eta eskubideak zehaztuta eta banakatuta agertzen dira espedientean jasotako zerrendan, identifikazioak egiteko datu askirekin agertu ere. Zerrenda hori jendaurrean jarri zen egoki zenean, eta bi alegazio aurkeztu ziren, administrazio-espedientean adierazten denez.

Zerbitzu teknikoek ikusi dutenez, ez dago espedientea izapidetzeko inolako hirigintza-oztoporik.

Ondasun eta eskubide horiek okupatzea luzaezintzat jotzen da, honako arrazoi hauengatik:

2018. urtean amaitu zen Kantauriko Ur Konfederazioak Urnietako Udalari emandako baimena Kabilonga errekatik 53,53 l/s-ko emaria hartzeko, ur-hornidurarako. Ondorioz, emakida berri bat eman zitzaion udalari, gehieneko emaria 3,4 l/s-ra murriztuz. Horrek arrisku larrian jarri zuen Urnietako zenbait eremuen ur-horniduraren bermea.

Bestalde, Urnietako ur propioen kalitatearen historikoak (uretan metal astunen arazoa du, baita koliformeek eragindako ohiko kutsadura-arazoa ere) premiazko ekintza bat egitera behartzen du, Osasun Zuzendaritzak gomendatu duen bezala.

Kabilonga errekatik hornitzeko emariaren murrizketak eragindako eskasia horrek, batetik, eta Urnietako udalerriko sistema propioetatik eratorritako uraren kalitatearen eskasiak, bestetik, arrisku handia dakarte. Hori dela-eta, premiazkoa da Añarbe sistemako azpiegiturak luzatzeko obrak egitea, Añarbeko urtegiko ura, Petrategiko EUTEn behar bezala edateko ur bihurtu ondoren, Urnietako hiri-sektore guztietara eramateko. Hori guztia proiektua gauzatu lortuko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26.1.f artikuluan xedatzen denez, Eusko Jaurlaritzari dagokio nahitaez desjabetu beharreko ondasunak eta eskubideak urgentziaz okupatu behar direla deklaratzeko, nahitaezko desjabetzeak honako hauek hartzen dituenean: exekuzio-unitate osoak, lurraldearen hirigintza-antolaketari dagozkion sistema orokorrak edo antolaketa horren elementuren bat eta hiri-lurzoruan egin beharreko banakako jarduketak. Goian aipatutako lege horrek 26.2 artikuluan

2022ko maiatzaren 20a, ostirala

ezarritakoaren arabera, lurralde-antolamenduaren eskumenak dituen sailburuari dagokio horretarako proposamena aurkeztea Gobernu Kontseiluari.

Hori dela eta, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposaturik, Gobernu Kontseiluak, 2022ko maiatzaren 10eko bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 26. artikuluan xedatutakoari jarraituz, nahitaez desjabetzeko, «Urnietako hiri-sektoreak Añarbe sistemaren ur-horniduran sartzeko proiektua» burutzeko beharrezkoak diren ondasunak eta eskubideak Añarbeko Uren Mankomunitateak urgentziaz okupatu beharrekoak direla deklaratzeko. Berariaz abiarazitako espedientean jasotako zerrendan daude zehaztuta eta banakatuta ondasun eta eskubide horiek.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aurretiaz berraztertze-errekurtsoa jar dakioko Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Dekretu hau azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira epeak.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko maiatzaren 10ean.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,  
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.